



2023ko MAIATZAREN LEHENA – Igor Arroyo koordinatzaile orokorraren interbentzioa

"Esparru guztiak lehiatuko ditugu"

Lantokietan, kalean eta erakundeetan borrokatzearen aldeko deia egin du LABek

Egun on! Egun ona benetan, gaur langileon eguna da Euskal Herrian eta Mundu osoan.

Gaur LAB, Euskal Herriko sindikatu nazionala, Euskal Herri osoan mobilizatu da, Baionatik Bilbora eta Gasteiztik Maulera.

Gure mobilizazioetan hainbat preso ohi parte hartzen ari dira. Eta badira oraindik preso jarraitzen duten euskal militanteak. Eurentzat da gure lehen mezua. Euskal preso guztiak Euskal Herrira ekartzea lortu du herri honek. Eta hurrengo erronkari helduko diogu orain:

EUSKAL PRESO GUZTIAK ETXERA!

Gaur LABen ordezkartza bat parte hartzen ari da ere, urtero legez, Kubako CTC sindikatuak antolatutako ekitaldietan.

Eta Munduko Federazio Sindikaleko gure kideak ere ditugu gogoan. Bost kontinenteetan klase sindikalismoa kalera atera da gaur.

Guretzat, eskutik doaz independentismoa eta internazionalismoa. Mundu berri bat nahi dugu, non herri guztiak libre eta pareko izango diren; Mundu berri bat non pertsona guztiak libre eta pareko izango diren.

Horregatik, gaur, gure konpromiso internazionalista eta antiinperialistan berresten gara.

Horregatik, gaur, gerra eta arpilaketa inperialista pairatzen duten munduko langileekin gure elkartasuna adierazten dugu. Gerrak gelditu! Ukrainakoa eta Yemengoa eta Siriakoa eta beste guztiak.

Horregatik, gaur, mundu osoko hondamendi ekologikoa eragiten ari den garapen eredua borrokatzeko konpromisoa adierazten dugu.

Horregatik, gaur, munduko txoko desberdinetatik Euskal Herrira datozen langile horiek antolatu eta defendatzeko gure erronka berresten dugu. Gure konpromiso antirrazista berresten dugu.

GORA MUNDUKO LANGILERIA!

Langile klasea lan- eta bizi-baldintzetan murrizketa berriak jasaten ari da. Prezioak igotzen dira eta ez, ordea, soldatak. Zaintza-beharrak areagotzen dira, baina ez, ordea, horiek asetzeko zerbitzu publikoak.

Osakidetzan gertatzen dena adibide ona da. Pandemiak osasun sistema publiko indartsu baten garrantzia erakutsi zuen. Eta orain, lanari ekin beharrean, Osakidetzak osasun-zentro birtual bat proposatzen digu, aurrez-aurrekoa ez den osasun-laguntza... A ze adarjotzea!

Betiko kontua. Lehenenik, murrizketak 2008ko krisiaren ondorioz. Gero, pandemiarengatiko murrizketak. Eta orain, prezioen igoera.

Hainbat aitzakia erabiltzen dira: finantza-krisia, pandemia, Ukrainako gerra. Baina benetako arrazoia berbera da: patronalaren diru-gosea, Kapitalaren diru-gosea.

Zorionez, Euskal Herriko langileek aurrerapausoa eman dute. Duela urtebete esan genuen: borroka-fase berri bat ireki behar da, borroka sindikalak ugaritu behar dira. Eta gaur, esan dezakegu borroka-fase hori ireki dela.

Datuak sendoak dira: Estatu espainiarrean egin diren greben erdia baino gehiago Hego Euskal Herrian egin dira.

Baina are garrantzitsuagoa: datuen atzean pertsonak daude, ahalduz-prozesuak, antolaketa, milaka pertsonaren ekintza sindikala.

Hemen zaudetenok egiten duzuen lan horrek ematen dio bizia sindikalismoari. Ze harrotasuna LABeko jendearekin militantzia eta antolakuntza partekatzea!

LABeko jendeak badaki aldaketak ez direla Elkarrizketa Sozialerako Mahai batetik etorriko, borrokatik baizik. Aldaketak ez direla Madrildik etorriko, Euskal Herritik baizik. Euskal Herrian eta sektore bakoitzean dauden gehiengo sindikalak errespetatu behar direla.

LABeko jendeak badaki eredugarri izan behar duela. Grebak, deitzeaz gain, prestatu eta egin ere egiten direla. Patronalari pultsua irabazteko, sindikatuen arteko borroka antolatu behar direla. Ekintza sindikalaren helburua ez dela sindikatu gisa etekin ateratzea, baizik eta klase gisa aurrera egitea.

LABeko jendea euskal sindikalismo berria praktikan jartzen ari da.

Bai, LABek euskal sindikalismo berria ordezkatzeko du

Guretzat, hitza eta ekintza eskutik doaz.

Esan genuen sindikalismoa birpentsatu beharra zegoela, sektore prekarizatuengana gerturatu behar zela. Eta horretan ari gara, etxeko langileekin, riderrekin, kultura eremukoekin, landa eremuko langile migratuekin.

Esan genuen sindikalismo soziala egin beharra dagoela. Eta horretan ari gara, mugimendu sozialekin batera, besteak beste, mugimendu feministarekin. Greba feminista Orokorra deitu du mugimendu feministak eta LABek deialdi horrekin bat egitea erabaki du .

Ez gara lan baldintzak hobetzearekin konformatzen, eredia lehiatu nahi dugu. Eta horretan ari gara: Madril eta Parisen posible ez diren aldaketak Euskal Herrian gauzatzeko lanean ari gara.

Independentismoa aldarrikatu ez ezik, praktikan jartzea da erronka. Lan harremanetarako eta babes sozialerako ekimen zehatzak abian jartzea. Euskal Errepublika eraiki nahi duen esparru sindikal, sozial eta politikoa artikulatzea. Nor bere autonomiatik, aldaketa sozial eta politikorako agenda partekatua eratuz.

Gu ez baikinena jaio sindikatu gisa hazteko; hazten ari gara, bai, baina beste zerbaitetarako jaio ginen: klase eta herri bezala askatzeko. Eta anbizio horrekin jarraituko dugu borrokan.

Langile klasea herri honetako gehiengo soziala gara. Baina politika publikoak ez dira errealitate hori kontuan hartuta egiten.

Inkestak sendoak dira: hiru pertsonatik bik diote ez dutela ikusten politikan eragiteko aukerarik. Aldiz, patronalaren lobby-ak etengabe baldintzatzen ditu politika ekonomikoak, esparru gehiago pribatizatzeke presioa egiten du, erreforma fiskala blokeatzen du.

Bada garaia egoera antidemokratiko honekin amaitzeko. Langile klasea baliarazi behar da. Langile klasea artikulatu behar da, duen boterea baliatu.

Areagotu dezagun banaketa hirukoitzaren aldeko presioa: enpleguaren, zaintzaren eta aberastasunaren banaketa.

Batu ditzagun indarrak lantokietatik eta kaletik Greba Orokor Feministan herrialde hau geldiarazteko.

Jar ditzagun gure aldarrikapenak agenda politikoaren erdigunean:

- Astean 30 orduko lanaldia, 1.400 euroko gutxieneko soldata.
- Zaintza-, osasun-, hezkuntza- eta etxebizitza-sistema publikoak.
- 1.080 euroko gutxieneko pentsioa
- Erreforma fiskala, kapitalak zergak behingoz ordaintzea

Lehia gaitezen espazio guztietan!

Borroka dezagun lantokietan.

Borroka dezagun kalean.

Eta borroka dezagun erakundeetan ere: langile boto bakar bat ere ez euskal neoliberalentzat!

Beste mundu bat egin nahi dugu, beste mundu bat egiten ari gara.

Ekintza bakoitzak badu bere balioa.

LABkide bakoitzaren ekarpena da garrantzitsua.

GORA EUSKAL LANGILERIA!

GORA EUSKAL HERRIA INDEPENDENTE, SOZIALISTA ETA FEMINISTA!

Euskal Herrian, 2022ko Maiatzaren Lehenean